

DRAMATIZAZIOA LEHEN HEZKUNTZAN. KONTZEPTUALIZAZIOTIK OBRA DRAMATIKO BATEN SORMENERA LEHEN ZIKLOAN LANTZEN DIREN KONPETENTZIEI BEGIRA

Tesiaren egilea: Itziar Urretabizkaia Zabaleta

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saila

Tesi-zuzendaria: Josu Rekalde Izagirre eta Lourdes Cilleruelo Gutierrez

Tesiaren laburpena:

Ikerketa honetan dramatizazioak hezkuntzan eta, bereziki, Lehen Hezkuntza mailako lehen zikloan duen lekua aztertzen da, helburu bakarrera bideratuta: 236/2015 Dekretuaren bigarren eranskina osatzen duen Oinarrizko Hezkuntza Curriculumean zehazten diren diziplina barruko oinarrizko konpetentzietan biltzen diren edukiak propio sorturiko obra dramatiko batean txertatzea, dramatizazioaren bitartez horien lanketa sustatzeko. Horretarako, ikuspegi teorikoen kontzeptualizaziotik hasten da, ondoren hiru alderdi aztertzeko: ibilbide propioa, berrikuspen bibliografiko konkretua eta Lehen Hezkuntzako Graduoko laugarren mailako ikasleei egindako inkesta jakin baten emaitzak. Horien inguruko hausnarketa hirukoitzetik ateratako ondorioak aintzat hartuta, jatorrizko obra dramatiko bat sortuko da hirugarren atalean. Obra dramatiko horren azterketa egingo da azkenik, bertan biltzen diren Lehen Hezkuntzako lehen zikloko eduki konketuak identifikatzeko.

Ikerketa honek hiru helburu konketu eta helburu orokor bat biltzen ditu. Helburu konketuen artean lehenengoa da dramatizazioa baliabide pedagogiko gisa ezagutaraztea, bereziki Oinarrizko Hezkuntza Curriculumean biltzen diren oinarrizko konpetentziak landu edota sendotzeko. Alderdi hau lehen ataleko kontzeptualizazioan aurkeztu eta bigarren ataleko berrikuspen bibliografikoan indartzen da.

Dramatizazio-jarduerak ongi bideratuak izan daitezen, ezinbestekoa da irakasleak gai honen inguruan formakuntza egokia izatea eta horixe da, hain zuzen, ikerketaren beste helburu konketuetako bat: formakuntza-gabezia hori agerian uztea. Lehen atalean ikusiko da prozesu hauek arrakastatsuak izan daitezen irakasle horren profilak nolakoa beharko lukeen izan; ondoren, bigarren atalean, gaur egungo formakuntzak duen lekua aztertuko da eta, azkenik, hirugarren atalean, dauden gabeziak nabarmendu ondoren, horri bideraturiko proposamen bat egingo da.

Hirugarren eta azken helburu konkretua jatorrizko obra dramatiko bat sortzea izango litzateke, non Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumean aipatzen diren Lehen Hezkuntzako lehen zikloko konpetentziak txertatzen diren, horiek lantzeko edota indartzeko. Obra dramatikoa sortzeko oinarriak bigarren atalean egindako hausnarketa hirukoitzetik atera dira.

Hiru helburuak ez dira, ordea, banaka kontuan hartzekoak, bata bestarekin zuzenean erlasionaturik baitaude: Lehen Hezkuntzako konpetentziak lantzeko dramatizazioa erabiltzea ezinezkoa baita, hori aurrera eramango duen profesional bat eduki gabe eta oinarrizko konpetentzia horiek biltzen dituen obra dramatikorik gabe.

Hiru helburu horiei loturik egongo litzateke helburu orokorra ere: Lehen Hezkuntzako irakasle direnei edo izango direnei jarduera dramatikoekiko grina piztea eta beren jardunean ikerketa honetan nabarmendurikoak nolahi ere erabilgarri edo motibagarri suertatzea.